

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

Izena eta izana ezbaian

2

Izena eta izana ezbaian: gida praktikoa

Joan den apirilean aurkeztu zuten Euskal Herriko Bilgune Feministak eta Emaginek euskal izendegia eta sexuen araberrako bereizkeria lantzeko gida praktikoa. Euskarazko izendegiaren binarismoaren inguruko gogoeta piztu nahi dute gida honekin. Izenak gure izaeran eragiten duenez, gure izana eraikitzeko elementu bat gehiago da eta beraz, gidaren egileek, sexuaren araberrako izenak ezartzea gainditzea proposatzen dute. Gidan horretarako estrategiak zehazten dira, hala nola,

ospitaleetako inskripzioak baliatzea, ustez erregistroan baino errazago onartuko dituztelakoan Euskaltzaindiaren araua betetzen ez duten aukerak; froga gisa izen abstraktuak, fikziozkoak edo toponimoak erabiltzea; etab. Gida honetan izen zerrenda bat ere ageri da, erabiltzaileekin batera osatzen joateko asmoaz sortu dena. ARGIAko kideen artean lau gida praktikoko zozketatuko ditugu urrian. Argazkian, gida praktikokoaren egileak, Donostian egindako aurkezpenean.



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Eragile hau hobeto ezagutzeko:



EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA

(+34) 943 59 09 02
bilgunefeminista.eus

#feminismoa
#euskaltzaletasuna
#lurraldetasuna

Hilabeteko honetako sariak

1



Arizmendi Ikastolaren Konfidantzaren Pedagogia liburua
4 liburu

2



Bilgune Feministak argitaratutako Izena eta izana ezbaian
4 gida

3



EHNEk argitaratutako Ardatza aldizkaria
4 harpidetza

4



Euskal Memoria Fundazioaren Euskararen kate hautsiak
2 liburu

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.